

V.26231 R.14182



R. 1023


ATA

3323

ARABA

Kexada

HISTORIA ETA ARTEA



ATA

3323



Kantzilerraren dorre-etxea.

HISTORIA

D. Fernan'en dorrea, bailara gaindituz atalaia lez, eta bere iparraldea eta hegoaldeak, San Juan egunez, ganadu azoka famatua, ez denbora asko dela, non egiten zen, zelai atsegin batez inguratuak daude.

XIVgarren mendean Fernan Perez de Aialak, leinurik utzi gabe Juan Sanchez de Salcedo, legezko bere aurretikoa, hil eta Lurraldeko Jaurerriaz jabe egin zenean, 1328an, eraiki zuen.

Beraz, Jauregia da multzo honen zatirik antzinenetakoa, nahiz eta XVIIIgarren mendean zati bat aldatua izan. Jatorrian benetako gotorleku bat zen —Aialatarren etxebizitzaz gainera— bi solairuko lauangeluar jauregi handi batez eratua, bere lau ertzetan hiru solairuzko dorreak eta etxe barnean patio zabal bat alboan zirela, zeinek, klaustro lez, arkuteri eder batez hornitua solairu nagusiko gelen igargua eusten zuen.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundia zati hau berritzen ari da dominikatar mojen elkargoari gaurko giroarekin hobeto datozen eskuarteak eman nahirik. Baita, zati honetan Aialatarrekin eta bailarako historiarekin zerikusia duten gaiak aurkeztuko diren museo bat lekutuko da.

San Juan Bautista Eliza neurri nabariko Eliza da, beharbada, Garcia Galindok XIIgarren mendean eraikitzeko agindu zuenaren gainean jasoa eta non itxuraz aurreko mendean hil zen leinuaren sortzailearen biloba Galindo Velazquez hilobiratua izan zen.

Nahiz eta, barroko itxurazkoa izan, aurreko garaien arrastoak gordetzen ditu; batez ere burualdeak: ganga eta giltzarri ederrak aialatarren armaz,



Kantzilerraren eta bere emaztearen eskultura etzanak.

XVI garrenean egin ziren zabalketen ondorioz, 1496an Aialatar Maria Andreak agindutakoa betetzeko.

Erretablo nagusia eta aldamenetako lauak barrokoak dira, ondo trazatu eta urreztatuak. Erdikoa San Juani eskainia, XVII.eko Vicente Ferrer eta Florentziako Antonio santuen irudi ederrez osatzen da, aldamenekoak Errosarioko Andra Mariren eta Domingo Santuarenez osatzen diren bezala. Beste biak, XVIII. mendekoak, Sienako Santa Katalina eta San Joseri eskainiak dira.

Elizara lau arkibolta zabalezko arku zorrotzeko ate latz baten bidez sartzen da, zein XVIIIgarren mendean eraikitako, oso latza bai baino itxura ederrezko patioaren arkupean zabaltzen den, baita ere kantzilerren dorre-etxera, komentura eta multzoaren geletara sarrera bezala erabiltzen den.

Ate honen aurreko horman batisterioa arkitzen da eta bertan, D. Fernan'en Jauregiko patiotik elizarako erabiltzen zen atea (nagusiaren antzekoa baina ximpleagoa).

Ate hauen alboan, eta dagozkien hormetan, bi harrizko hilobi dira, bere garaian San Migel eta San Jorgeren kapilak zirenak eta XVIIIgarren mendetik, XVgarren mendean hildako Fernan Perez de Ayala eta bere emazte Maria de Sarmientoren hilobiak; eta hauek elizaren koru-oinetan hilobiratzeko eskatu zuten eta «edificaron e dotaron el ospital de la villa de Bitoria» Maria Andreak irakurtzen denez, eta bere senarrarenean bezala Aialatarren otsoekin eta Sarmientotarren roelesekin armariak dituzte, baina batez ere, dagozkien pertsonen irudi etzanak oso ederrak.

Komentua, Kantzilerraren aitak 1378an sortua, Santo Domingoren soaldiko Lekaidego bat bizi izan da eta bizi da, zeinek egunero



«Virgen del Cabello»ren erlikitegia.

«Nuestra Señora del Cabello» izeneko Andra Mari gurtzen duen. Andra Mariren irudia, bere fundadoreak komentuari emandako bitxirik nagusia da.

Kantzillerren dorre-etxea edo «Virgen del Cabello»ren Kapila da, dudarik gabe zatirik monumentalena, «eta Arabako arkitektura zibil-militarren alerik ederrenetako bat» Mikaela Portilla Irakasleak idatzia duenez.

Itxura latzezko baina ederrezko gotor-leku bat da, oinplano laukizuzenekoa erlaiz eder baten gainean almenaz koroatua, lau urbidetara teilatuz estalia, «mandaron fazer don Pero Lopes, señor de Ayala e de Salvatierra et Chancellor Mayor del Rey, et Donna Leonor de Guzman su mujer. Anno del nacimiento del Nuestro Salvador IHUXPO de mill et trescientos e XC e IX annos» «Nuestra Señora del Cabello» kapilari eskainia dagoen dorreko horma nagusian ezarritako alabastrozko oroitarrian irakurtzen denez.

Gela hau neurri haundikoa, xake-antzeko begi batez, burualdean lehio bat eta hegoaldeko horman bi lehio ederren bidez argitzen da. Gela hontara —harroingaineko giza arpegi estilizatuaz— arku zorrotz eta hiru arkiboltazko ateaurretik sartzen da; eta guztia multzoaren atarian zabaltzen da.

Gelaren erdian erabat plateretzko jaunilari eder bat dago. Kantziler eta bere emazte Leonor de Guzman'en panteoia da. Bere irudi etzanak, berarizko edertasunez, garaiko jantziz estaliak aurkitzen dira: gizona, gudu jantziz eta espataz, eskularru eta zorroan eskulan benetakoaz; emakumea: txabux, buruko eta eskularruz, zoragarriki grabatutako otoitz-liburua eskuan duelarik. Biak hamabi lehoiek eutsitako eta santu, aingeru, monje, andere eta gudarien iduriz apaindutako oinarri artistiko baten gainean.



Aldamenetako hormetan bi hilobi daude bakoitza bere irudi etzanaz, aurrekoen antzera oso ederki labratuak. Ezkerrekoa, Fernan Perez de Ayala, Kantzilerren aitarena eta bestea berriz, doña Elvira de Ceballos, haren emaztearena.


1959an Arabako Foru Aldundiak berritu zuenetik, kapila-aretoan burualdeko horma guztia betetzen duen erretablo eder bat dago, ia hiru metro alturatik, Cristobal Gonzalez Quesada'ak pintatua. Gaur egun Chicagoko Arte Institutoan erakusten denaren kopia zehatza da eta «que mandaron fazer don Pero Lopes de Dios e Santa Maria en el año del nacimiento de nuestro Señor Yhuxpo de mill e trescientos e seis años» Aiala eta Guzman'en armarriz apaindutako bere beheko xingolan irakurtzen denez.

Hitzaren Gizakundetik hasita, Pentekostes egunez Espiritu Santuaren etorrerainoko, Kristoren eta Andra Mariaren bizitzako hainbat gertakizunak, Jaunaren Jaiotza eta Errege Gurtzaz gainera, adierazten dizkiguten pinturaz osatua dago. Goi xingolako erdiko pinturak Kristo gurutzatua eta bere ezker-eskubi kantzilerren biloba eta bere emaztea, belauniko errezatzen erakusten digu. Beheko xingolaren ertzetan, ezkerraldekoan, kantzilerra eta bere seme Fernan San Blasen bedekua hartzen eta Leonor de Guzman eta bere amagiarreba Maria de Sarmiento Santo Tomas de Aquinorena.

Xingola honen erdialdea, «Virgen del Cabello»ren erlikitegiaren ekisaindurako izan zen, norako sarrera duten, bertan ospatzen diren elizkizunetara ospatzen ari diren dominikar komunitadea-aretoaren oinetan eraikitzen den korutik jeisteko, batez ere, Santo Domingo egunez Abuztuaren 8an, noiz joaten diren Arabako Foru Aldundia, Aialako Udala eta Kexaako kontseilua, eta eliz biran «Virgen del Cabello»ren erlikia aldareraino eramaten den.

Kexaa ez da Aiara Udala osatzen duten hogeitalau izakundeetako bat bakarrik, baita ere —hamabost edo hogei baserri sakabanatutako enpian— Aiala eskualdeko, gehien aipaturiko oroitarrizko multzo historikoa kokatzen den lekua eta Kadaguarantz doan Izalde ibaiak ureztatzen duen bailara txikiaren hegoaldean dagoena.

Hiru ekitaldietan jasoa eta don Fernan'en dorreaz osatua, Klausurako mojetxea Aiala Kantzilerren dorre-etxea eta San Juanen Eliza, arkitektura multzo eder honetara, Errespalditzatik hiru bat kilometrotara, Amurriotik Balmasedarako C-6210tik doan L.636 errepideaz bertara heltzen da.



Hitzak: JOAQUIN JIMENEZ

Argazkiak: ARCHIVO FOURNIER

Irarketa: H. FOURNIER, S.A. - Vitoria-Gasteiz : Legezko Ezarpena: VI. 494 - 1985

**DIPUTACION FORAL
DE ALAVA**



**ARABAKO FORU
ALDUNDIA**

DEPARTAMENTO DE CULTURA - KULTURA SAILA
SERVICIO DE TURISMO - TURISMO ZERBITZUA